

MENTXAKAREN AITORPENA: VI. Asanblada

(...)

Etxe barruko eskaileretan gora, ganbararen antzeko esparru zabal batean eman genituen hainbat egun. Ohantzez beteta, altzaririk gabe zegoen alderdi batean egin genituen bilerak. Oso giro beroan, tentsio pertsonal ikaragarriak sortu ziren eztabaidea bitartean.

Erakundearen segurtasuna zaintzeko, mozorrotuta geunden denok. Ez zen batere erosoa gertatzen Letxepan intendentzia-buruak prestatzen zigun fideo-zopa ahora eramatea. Estalkia esku batekin ahoraino jasota, ahal moduan zurrupatu behar izaten genuen plateretik. Azkenean, fideoz eta jogurtez beteta gelditzen zitzaigun zapia.

Aurreko trabak ez ezik, beroa ere handia zen, eta, eztabaidea luzeetan trabatuta, behin baino gehiagotan sortu ziren istiluak tentsioaren ondorioz. Behin, adibidez, zelula gorriaren zebilen batek, Maurok, hemen ez dago inor bestearen aurpegia ezagutzen ez duenik esan zuen oihuka, eta, zutik jarrita, mozorroa erantzi zuen.

Pasadizo barregarriren bat ere gertatu zen, dena den. Biltzarraren azken aldera, esate baterako, eten egin zen eztabaidea, eta Mahaiak inori hitzik ematen ez zionez, parte hartzeko baimena eskatu zuen ordezkari batek. Bikila zegoen mahaiburu, baina ez zion entzun. Ametsetan murgilduta, bat-batean esnatu zen. Ez zekien non zegoen, edo beste nonbait zegoela uste zuen, zeren diakronia eta sinkroniaren ikuspuntutik... hasi zen esaten. Aho bete hortz, jendeak ez zekien zer pentsatu. Nekeak eta logaleak iota, erdi lotan zegoen. Soldaduska garaian, Logroñon, Ferdinand de Saussureren liburu bat irakurri omen zuen, gero azaldu zigunez, eta linguistikari buruzko kontuak atera zitzaizkion nahi gabe.

Gertatuak gertatu, hala ere, sentsazio traumatiko samarra atera genuen gehienok eztabaidea politiko haietatik. Inork baino hobeto ikus nezakeen Haundixek talde militarraren izenean antolatutako maniobra baldarra. Ez zuen aurreko eztabaidea politikoetan parte hartu. Klasearteko ikuspuntu nahasietan harrapatuta, mendi giroko jarduera militarraren alde, ez zen jabetu erakundean sortutako joera berriekin, ez eta zelula gorrien eta Hegoaldeko militantziaren artean piztutako arazo politikoekin ere. Nekez uler zitekeen bestela Jose Maria Eskubi "Bruno", zelula gorriekin militante aitortuenetako baten kontra egindako salaketa zentzugabea. Juan Jose Etxabek berak, Edur Arregik, Emilio Lopez Adan "Beltzak", Julen Madariagak eta Federiko Krutwigek sinatutako agirian irakur zitekeenez, iruzurrean omen zebilen Biltzarra manipulatu nahian.

MENTXAKAREN AITORPENA: VI. Asanblada

Egia esan, urte asko borrokan emandako militanteak ziren, baina talde nahasi eta berezia osatzen zuten orduan. Beltza erakundetik kanpo zegoen ordurako, eta gainerakoek, Haundixeak izan ezik, garai hartan ez zuten erakundearen jarduera politikoan parte hartzen. Adierazgarria izan zen Julen Madariagaren kasua; izan ere, zelula gorrien eta Hegoaldeko posizioen arteko talka entzun zuenean –ondoko gela batean zegoen bakartuta, baina entzun egin zuen– eskutitz bat zuzendu zion mahaiburuari, esanez, informazio zuzena ez izateak ez ziola errealtitatea behar bezala konprenitzen utzi.

Aurreneko partean, talde militarraren aurrean zein jarrera hartu eztabaidatu genuen. Bagenekein matxinatuta zeudela, eta ez zutela Biltzarra aintzat hartzen. Ahaleginak egin genituen Julen Madariagak –agiria sinatu zutenen arteko bat– bere jarrera alda zezan, baina ezezkoa eman zigun, eta ondoko gela batean egon behar izan zuen, bakartuta, segurtasun neurriak gordetzeko.

Aurrera egin baino lehen, Haundixeak borroka armatuari buruz defendatzen zuen posizioa eztabaidatu zen Biltzarrean. Pauetik bidali zidan eskutitz bat jarri nuen mahaieren eskuetan. Bertan, Euskal Iraultzaren gune nagusia “baserria” zela esaten zuen, eta bi arrazoi ematen zituen: alderdi etno-linguistikoa eta gerrilla mendian egin beharra zegoela.

Eztabaidaren beroan, zelula gorriek hartu zuten hitza. Ez zuten ikuspegi estrategikorik planteatu eztabaidan. Arrazoi psikologikoak atera ziren politikoak baino gehiago, eta borroka armatuaren ondorioak aipatu zitzuten batez ere. Jarduera militarrak militante despolitizatuak sortzen omen zituen, eta emaitzek ez zuten egin beharreko sakrifizioa merezi. Ildo horri jarraiki, “Makauen” Mikel Etxebarriaren eskutitz bat irakurri zuten. ETAk, bere ustez, jendearen txaloa bazeukan, baina balkoietatik egiten zuen txalo, borrokan parte hartu gabe. Apirilean jasotako kolpearen eraginpean oraindik, Arantxa Arruti kartzelan hiltzeko zorian zegoela jakin genuen bertan, eta ikaragarri nahasi zen giroa.

Arrazoiak arrazoi, Hegoaldeko erakundeak propaganda armatuaren alorreko asmo eta esperientziak azaldu zituen; ez zen inor aurka atera. Erabaki gabe zegoen oraindik talde militarraren matxinadari buruzko auzia, eta, eztabaida luze baten ondoren, erakundetik kanpo uztea eskatu zitzaison mahaiali.

Alde bateko eta besteko ordezkarien arteko tirabirarik gogorrena borroka ideologikoa bideratzeko orduan planteatu zen. Eztabaidatu beharreko alderdi ideologiko eta politikoak jasotzen zituen txosten bat ekarri zuten Hegoaldetik, “Proposamen Orokorrak” zuen izena. Zelula gorriek, ordea, balantze politiko globala egin beharra ikusten zuten beste ezer baino lehen, eta, horretarako,

MENTXAKAREN AITORPENA: VI. Asanblada

herrialdez herrialde jasotako txosten batzuk eta “Batasuna” kanpainari buruzko zenbait lan atera zituzten.

Erabilitako metodologiak ez zuen utzi bi joeren azpian zegoen liskar politikoa azaleratzen. Zelula gorrien uztez, ordura arteko praktika politikoa “ideologia burges txikiaren esanetara zegoen, eta nazionalismoan, aktibismoan eta voluntarismoan hartzen zuen oinarri”. Hegoaldeko ordezkarien iritziz, berriz, ETAren errealitatearekin zerikusirik ez zuten abstrakzioetan ari ziren lerratzen. Laster konturatu ginen bide hark ez zigula gutxieneko puntu ideologiko batzuk adosten lagunduko.

Isilaldi luze baten ondoren, zelula gorriek baiezkoa eman zioten azkenean, baina, eztabaidea ideologikoaren bideak zehazteko, erabaki osagarri bat sartu nahi zuten testuan. Alde batetik, tendentziaren esanahia beren ustez zein zen jakitera emateko, eta, bestetik, Iraultza aldizkariaren betebeharra zehazteko, zeren eztabaidea ideologikoa, militanteengana ez ezik, erakundetik kanpoko jendearengana ere ailegatzea nahi omen zuten.

Eskari honek susmo txarra sortu zuen Hegoaldeko ordezkarien artean. Ez zuten uste eztabaidea ideologikoa masa-mailan planteatu behar zenik, kaltegarria gerta baitzitekeen ETAren batasun politiko eta ideologikoari begira.

Ikuspuntu honek eztabaidea latza ekarri zuen. Ezinezkoa bihurtu zen akordioa. Azkenean, zelula gorriek ETA uzteko asmoa jakitera eman zutenean, uko egin zioten Hegoaldekoek puntu horri, eta tendentzia bakoitzeko bi lagunekin osatutako batzorde bat proposatu zuten eztabaidea ideologikoaren arauak erabakitzeko. Aparte bildu ziren zelula gorriak, eta azterketa bukatutakoan, norberaren esku utzi zuten erabakia. Jesus Maria Larena “Israelek” izan ezik, beste guztiekin alde egin zuten.

Mentxakaren aitorpena, 229-233 or.